

IRAKURGAIA: A2

UDALAREN OHARRAK



Udaletxeko iragarki-taulan ohar batzuk ikusi dituzu.

Astebururako eguraldi txarra iragarri dute. "Nagusia Bizirik" ekimena ez da larunbat honetan egingo.

Euskotrenek larunbatean, urriaren 26an, autobusen gaueko zerbitzuak aldatuko ditu ordu-aldaketa ofizialaren ondorioz.

Igerilekua itxita egongo da udako oporrenegatik. Abuztuaren 5etik 28ra.

Herriko jaietan, ekainaren 29tik uztailaren 3ra udal liburutegia itxita egongo da.

UDAL LIBURUTEGIA
Erabiltzaileentzako oharra: Mailegatutako liburuak uztailaren 27rako itzuli beharko dira informazio gunean.

Eguraldia zalantzakoa denez, hurrengo asteko udal bandaren kontzertua frontoian izango da azkenean.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak ostiralera arte luzatu du alerta laranja; elur maila 100 metrotik beherakoa izango da.

Ostiraleko irakurketa tailerraren saioa atzeratu egin da.

Alluitz eta Frai Juan Zumarraga kaleak itxiko dira, maiatzaren 13an, egun osoz, berritze-lanengatik.

1. Irakurri esaldiak eta esan **EGIA** edo **GEZURRA** diren:

	EGIA	GEZURRA
Udal bandaren kontzertua herriko plazan izango da.		
Ostiraleko irakurketa beste egun batean egingo da.		
Liburutegia ireki egingo dute herriko jaietan.		
Euri pila bat egin behar du; horregatik luzatu dute alerta laranja.		
Igerilekua garbiketa egiteko itxiko dute.		

	EGIA	GEZURRA
Ordu-aldaketa dela-eta, urriaren 26an eguneko zerbitzuak aldatuko dira.		
“Nagusia Bizirik” ekimenean aldaketa gertatu da.		
Uztailaren 27an hasiko da liburuak mailegatzeko epea.		
Alluitz eta Frai Juan Zumarraga kaleak itxita egongo dira maiatzaren 13an, bai goizez eta bai arratsaldez.		

